



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina

33. alea | 2008ko Azaroa/A |

ALE BEREZIA: Gelmini legea | nazioartea@euskaleskola.org

| <http://www.euskaleskola.org/>

GELMINI: ITALIAN BOLOGNAN SAKONDUZ ETA HARUNTZAGO

Azkeneko egun hauetan zeresan handia sortu du Italian Mariastella Gelmini ministroak proposaturiko legeak. Berlusconi proposaturiko politikaren azkeneko pausoa litzatekeen honek ikasle eta irakasleen sektore zabalen haserrean sortu du eta normalki gertatzen ez den arren Euskal Herriko prentsara ere iritsi dira bere oihartzunak. Talde faxistek manifestarietarako erasoak, poliziaren presentzia itogarria eta “krisi finantzieroa” erantzutea nahastu dira gertakari hauetan. Gelmini legeak hezkuntza osoa berrarautzeko helburua du, haur eskoletatik unibertsitatera. Baina zertan datza Gelmini legea?

Berrantolaketa: Momentu honetan Italian 1.100.000 langile daude Hezkuntza Sistemaren lanean. Dekretu honen bitartez %10 gutxitu nahi dute kopurua, hau da, 110.000 langile kaleratu nahi dituzte. Irakasleak ez diren langileen artean %17koa izango da murrizketa. Orain dagoen ikasle/irakasle ratioa 8,94 den bitartean 2012rako 9,94ra igo nahi dute, ikasle kopuruaren igoera bat egon daitekeela kontutan hartu gabe. Gainera ikastetxeko orduen murrizketa ere egingo dute: 28-30 ordu lizeoetan eta 32 ordu lanbide eskolatan. Era berean 50 edo 100 ikasle baino gutxiago dituzten institutuak ixtea proposatzen dute.

Irakasle bakarria bueltan da: Lehen Hezkuntzako ordutegia 24 ordura murrizten du Gelmini legeak. Hau iraganean zegoen eredurantz jotzea da eta berriro ikasgelako irakasle bakarreko ereduak ezartzen du. Italian orain dela hamarkadak ezarri zen Haur eta Lehen Hezkuntzako 2 ikasgelako 3 irakasle egon behar zirela. Beraz ikasgelako irakasle erdi kentzen dutenez 20.000tik 30.000 irakasle kaleratu ahal dituzte.

Jarrerari nota: Proposatzen duen aldaketa handi bat jarrerari nota bat jartzearena da. Modu honetan diziiplina ere ebaluagarria izan dadila lortu dute. Jarreraren ebaluazio horrek, gainera, bukaerako notarako ere balioko luke.

Apartheida: Lege hau onartu denetik ikasle etorkinak ikasgela berezietan sartuko dituzte. Lege hau xenofobia eta arrazista da zentzu horretan eta, gainera, ez du batere laguntzen etorkinen integrazioan. Eskola batzuetan ghetto handiak sortzeko aukera egongo da.

Pribatizazioa: Bologna Prozesuaren arauekin jarraituz eskola sistema osoa baina batez ere unibertsitateak pribatizatze bidea irekitzen du. Krisi egoera argudiatuta unibertsitateak salgai jartzen ditu, guztiak Fundazio bilakatuz.

Testu-liburen afera Hartzen den neurri populistetako bat testu-liburuena da. Familiek xahutzen duten dirutzarekin amaitzeko testu-liburuak ezingo direla 5 urte baino lehenago aldatu esaten da. Hau da, argitaletxeek 5 urtetan behin baino ez dituzte liburuak salduko. Ezin dugu ahaztu Berlusconi Mondadori argitaletxearen jabea dela eta, beraz, neurri honekin bere kompetentziarekin bukatzeko aukera duela (Italiako argitaletxe askoren diru sarrera nagusia urtero testu-liburuak saltzea baita, Mondadorirena ez bezala).

GELMINI LEGEARI ERANTZUNEZ

112/2008 lege dekretua ekainaren 25ean onartu zuten. Dekretu honetan ahalik eta azkarren lege bat egitea proposatzen zen. Udan erabiliz 133/2008 legea egin zuten, abuztuaren 5 batean. Lege honen onarpena urriaren 29ean egin zen. Hain azkar eta udan egitearen arrazoia krisia ekonomikoari erantzutea omen zen.

2008ko irailean eskolak ireki zituztenean lehenengo mugimenduan antolatu ziren lege honen aurka. Lehenengo ideietan irakasleen ezegonkortasuna, irakasle bakarra sartzea pentsaera bakarra sartzea dela eta portaera ebaluatzea autoritarismoa dela eta etorkinak bereiztea arrazakeria dela salatzen dute hainbat irakaslek. Urriaren 3an Goi Eskoletako ikasleen sare autonomoak manifestaldiak egin zituen Italiako hiri askotan. Urriaren 13an bertan Gelminik Milanen eman behar zuen hitzaldi batera ez joatea erabaki zuen, gerta zitekeenaren beldur. Urriaren bertan ere Unibertsitateetan ikasturtea hasi zen eta lelo bat suertatzen da guztien artean: “Guk ez dugu zuen krisia ordainduko!”. Neoliberalismoa, prekarietatea eta krisi ekonomikoaren inguruan hitz egiten hasi ziren unibertsitateetan.

Astero mugimenduaren hazkuntza ematen da. Haur Eskoletan irakasle, AZP, guraso eta haurrak mobilizatzen dira. Bigarren Hezkuntzan ikasleen sareak. Unibertsitateetan bekadunak, prekarioak eta irakasleak ikasleekin batera kalera atera ziren.

Baina aldaketa garrantzitsu bat dago. Unibertsitateetatik ateratzen diren unibertsitarioren gehiengoak ez du sinpleki erreformaren aurka egiten gaur egungo unibertsitatea defendatzeko: aurretik egon diren zentro-ezkerreko gobernuek ere egindakoa kritikatzeko dute eta unibertsitateak orain arte bezala “jauntxoak” esku egon daitezkeen ez dute nahi.

Urriaren 17an Berlusconiaren gobernuak jasotako lehenengo greba izan zen. Baseko sindikatuek deitu zuten, baina eskoletako langileek pisu garrantzitsua hartu zuten. Hainbestera izan zen berez Berlusconiaren aurkako greba horri “No Gelmini Day” izena eman zaiola. Erroman 300.000 pertsona atera zirela kalkultzen dute, ikasle, irakasle eta langileak elkartuta. Manifestaldiaren ondoren beste txikiago bat ateratzen da eta polizia gaituz Hezkuntza Ministerioraino iritsi ziren. Hurrengo egunetan manifestaldiak biderkatu eta han-hemenka mobilizazioak egin ziren Italian. Fakultate gehienetan asanbladak sortu ziren eta ikasgelak blokeatu zituzten.

Urriaren 21ean Milanen Unibertsitatearen Kongresua burutu zen. Bertako ikasleek mobilizazioak deitu zituzten egun horretarako eta 2.000 pertsona atera ziren kalera, hiria blokeatzeko asmoarekin. Erroman eta Florentzian ere manifestaldiak antolatzen dituzte eta tren geltokiak blokeatu. Milanen poliziak tren geltokia hartu eta ikasleek autobide batean eserialdia egin zuten. Florentzian 40.000 ikasle, irakasle eta guraso atera ziren kalera, inguruko herri eta hirietatik mobilizatuz eta poliziarri aurre eginez. Milanen klase ofizialak eteten dituzte hurrengo egunetan, unibertsitateak okupatuz eta gauetan jaiak antolatu. Ondoren kalera irten eta herri eskolak antolatzen dituzte zelaietan: “unibertsitatea askea, jakintza askea” leloa ezartzen diote dinamikari.

Urriaren 22an Berlusconi polizia altxatzen diren eskoletara eramango duela esaten du. Hainbat eskoletan “Nik ez dut beldurrik” leloa oihukatzen da. Hurrengo bi egunetan Milango Duomo enparantzan chundaka ikasle eta irakasleek beste unibertsitatea eredu baten alde egiten dute: horizontaltasuna eta autoikaskuntza. Unibertsitate hirian sar dadila eta hiria unibertsitatean sar dadila proposatzen dute eta horrekin batera garraio publiko osoa blokeatu. 23an Erroman milaka ikasle atera ziren kalera Parlamenturantz.

Hurrengo egunetan Berlusconi manifestaldietan “extremistak” egon daitezkeela esaten du eta horretarako polizia ugari bidaltzen ditu leku guztietara. Baina extremista horiek eskuin-muturreko kideak dira, ikasleak kolpatzera doazenak Italiako bandera duten borrekin. Poliziak ez du ezer egiten euren aurka, bai ordea ezkerreko ikasleen aurka. Hurrengo egunetan gertakari horren inguruan hitz egin dadila lortzen dute, manifestaldiaren benetako arrazoiaren inguruan hitz egin ordez. Florentzia, Genoa, Torino eta Sienan herri eskolak antolatzen dituzte arrakasta handiz. Cagliari, Palermo, Catania, Napoles, Pavia eta Ferraran unibertsitatearen blokeoa osoa da. Beste hiri gehienetan okupazioak ere egin dira urriaren bukaeran. Erroman herri eskola bat antolatzen dute Parlamentuaren aurrean.

Urriaren 30ean, legea onartzen den eguna, milaka eta milaka ikasle, herritar eta langile atera ziren kalera. Erroman ehunka mila direla kontatzen dute. Hurrengo asteetan ere hainbat mobilizazio deitu dituzte, azaro beroa aurreikusiz. Ikasleen Nazioarteko Egunaren inguruan ere bi greba orokor deitu dituzte unibertsitateetatik.

INFORMAZIO GEHIAGORAKO

<http://www.collettivi.org> Ikasle mugimenduaren webgunea

<http://www.liquida.it/collettivi-studenteschi> Blog ezberdinetan argitaratzen denaren bilduma.

<http://caiazzorinasce.blogspot.com/2008/10/sciopero-contro-la-riforma.html> Legearen inguruan.

<http://www.globalproject.info/art-17605.html> Gertakariaren gaineko kronika.

<http://altermediamundo.blogia.com/2008/103101-avanzan-los-neonazis-en-italia-y-otras-noticias.php>

<http://orizzontedocenti.wordpress.com/2008/10/21/scuola-studenti-pronti-a-bloccare-tutto/> Hainbat datu.